

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Baiona



Aurkibidea

Udalerria: Baiona

Sarrera



Baiona Lapurdiko hiriburua eta Ipar Euskal Herriko hiri nagusia da. Halaber, Euskal Herri osoko hamargarren hiri handiena da. Baionak, Angelu eta Biarritzeko udalerriekin batera BAB izeneko gune metropolitarra osatzen du. (Argazkia [Wikipedia](#)tik hartua)

- **Biztanleak:** 51.411
- **Euskaldunak:** %7,19

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **2**
- Zintak: **3**
- Pasarteak: **15**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **15**

Proiektuak

- EibarOrg blog komunitateak 10 urte
- Periferiaren mugak

Hizlariak

Jurgi Ekiza (1980)



Baionan jaio eta hezitako euskalduna da Jurgi Ekiza. Bere ama hizkuntza euskara izan arren, nerabezaroan guztiz galdu zuen. Hala ere, gerora AEKn ikasteko hautua egin zuen, eta gaur egun bere laneko tresna da euskara. Izan ere, Willis Drummond taldeko abeslari eta konposatzailea da.

Bea Salaberri Larre (1979)

Haur eta gazte denborak iraganak ditu Donamartiriko herrian. Azken 15 urteetan Baionan bizi izan da. Ikasketak egin ditu Baiona eta Bordeleko fakultateen artean, euskal filologian. Maitrise bat du arlo horretan. Euskara irakasle gisa hasi zen gazte denboran eta AEK-ko langile gisa sartu 2002. urtean. 2004az geroztik, didaktika sailean ari da, iparraldeko AEK-n.



Bestalde, gustu parte hartu izan du hainbat gauzatan: kultur elkarte, antzerki talde, aldizkaritako kolaboratzaile, ikastola. Teknologia eta honek idekitzen dituen aukerak jorratzea biziki gustuko du eta hortik hainbat esperientzia burutu izan ditu, gustuz hasteko eta gero maila profesionalean esperientzia batzuk burutzeko aukera ere izan zuen. Gustuko gaien artean, baita lanekoak ere: euskara, irakaskuntza, didaktika, prestakuntza, sarea, kolaborazioa, parte hartzea eta horrelako saltsak.

Bere bloga: <http://hanetahemen.blogspot.com.es>

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Euskararekin izandako harremana (BAO-002/001)

Jurgi Ekizak etxean ikasi zuen euskara, ama euskalduna baitzen. Hala ere, 7 urterekin frantsesez bakarrik zen eskola batean hasi eta euskara galdu zuen. Helduagoa zenean, arrazoi ezberdinengatik AEKn berreskuratu zuen euskara.

2. Euskal komunitatea Baionan (BAO-002/002)

Baionan euskararekiko egoera berezi bat dagoela esaten du Jurgik. Euskarak, bere ustez, euskal komunitate baten ateak irekitzen dituelako.

3. Euskal kultura eta euskara (BAO-002/005)

Harremana badago euskararen eta euskal kulturaren artean. Tresna ezberdinei buruz hitz egin du Jurgik: musika, Herri Urrats, "Euskoa"...

4. Euskal Periferia (BAO-002/006)

Zentro bat eta periferia bat baino Euskal Herriko beste lurraldeetan gertatzen ez den egoera berezi bat ikusten du Jurgi Ekizak Ipar Euskal Herrian.

5. Egun oso bat euskaraz Baionan (BAO-002/007)

Euskararen inguruko leloei egokitu behar direla uste du Jurgi Ekizak. Izan ere, Baiona ez da hiri euskaldun bat, egun oso bat euskaraz bizi ahalko bazinen ere. Noski, leku gutxitara joanda.

6. Euskaraz kantatzeko hautua (BAO-002/008)

Willis Drummond taldeko abeslari eta konposatzailea da Jurgi. Berak euskaraz kantatzeko hautua egin zuen arrazoi ezberdinengatik.

7. Euskararen nortasuna (BAO-002/009)

Beste gauza batzuen artean, bizitzeko eta mundua ikusteko modu bat eman dio euskarak Ekizari.

8. Unibertsitateen arteko akordioak (BAO-003/003)

Ikasketak eta unibertsitateekin dauden akordioak.

9. Baionan euskarazko komunitate baten beharra (BAO-003/004)

Baionara heldu zenean euskarak zuen egoeraz hitz egiten du. Baionan euskaraz bizitzeko, euskarazko komunitate baten beharra aipatzen du.

10. Euskararekiko lege babesak eta hizkuntza politikak Periferian (BAO-003/005)

Periferiaren inguruan, lege babesak eta hizkuntza politikak.

11. Euskal kulturako entitate eta egiturek duten garrantzia (BAO-003/006)

Euskal kulturako entitate eta egiturek duten garrantziaren inguruan hitz egiten du.

12. Euskararen transmisioa Baionan (BAO-003/008)

Euskararen transmisioa Baionan, Sehaska edo eta eskola elebidunen inguruan.

13. Erdiguneko ekimenek zer harrera dute periferian? (BAO-003/010)

Sustrai Colinak erdigunean euskararen alde egiten ziren ekimen askok periferian ez zutela balio bera esan zuen. Beak bere iritzia ematen du horren inguruan.

14. Euskarak zer etorkizun du Baionan? (BAO-003/011)

Euskararen etorkizuna Baionan.

15. Lankidetzak beharrezkoa euskalgintzan (BAO-003/012)

Euskalgintzaren inguruan kooperazioaren beharraz hitz egiten du.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com